

ARGIA 2020 AMAIERAN

Hilik baikaude, bizirik gaudela ez badugu oihukatzen

Urte gogorra izan da ARGIA egiten dugunontzat ere. Historiaren gorpila azkartzen sentitu dugu eta lurralde ezezagunera garamatzen fenomeno erraldoi hau periodistikoki jorratzen galtza bete lan izan dugu. Hala ere, ezin dugu ahaztu kazetaritza independentea egiteko aukera badugu, hori denon artean ARGIA ekonomikoki bideragari egiten asmatzen dugulako dela. Erreportaje honetan, gardentasun ariketa gisa, ARGIA pandemia eta krisi urte honen amaierara nola heldu den azaldu nahi diogu hainbeste ematen digun komunitateari, baita aurrera begira zer planteatzen dugun ere.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Formatua aldatuta dator 55. Durangoko Azoka eta ez da erakusmahairik egongo. Urriaren 8a da eta Gerediaga Elkarteen erabakiaren berri irakur daiteke gure webgunean. Urtez urte ARGIAren erakusleihora fidel hurbiltzen diren komunitateko lagunak agurtu, elkar ezagutu, solastu, esker-tu eta azken batean, aurrez aurrekoak dakarren energiarik gabe ere utziko gaitu 2020 honek, beste gauza askoren artean. Pena da, egia esan.

Durangoko albisteak, baina, badu euskal kulturaren dabilen jendea kezkatu duen beste alderdi pragmatikoago bat ere. Euskal Herriko proiektu askorentzat urteko salmenta gune ga-

rantzitsuena da Durangoko plaza eta Gerediaga Elkartek webgune baten bidez erosketak bideratuko dituela iragarri arren, ziurgabetasuna da nagusi eragileen artean, inork ez baitaki nola erantzungo duen azokara joan ohi den herritarrak, lehen aldia izaki halako planteamendua egiten dela. Zaila dirudi aurreko urteetako joerak mantentzea eta hobe gerra ekonomiarako prestatzea.

Panorama ikusita, ARGIAko lantaldea ez dago besoak gurutzatuta gertzeko, eta urte amaierari propio eusteko lantalde berezi bat osatzea erabaki dute. Aurreko urteetan Durangon esku-ratu zen babes ekonomikoa beste bide batzuetatik lortzea ezinezkoa izango

dela jakin arren, borrokatzeko grina gailentzen da.

SALMENTA GUNEEN GARRANTZIA

Lantalde horren lan nagusia, Gabonetako oparietarako ARGIAren produktuak erostek ekintza militantetik asko duela azaltzea da. Liburuak, egutegiak, agendak, jantziak, poltsak eta beste aurkituko du opari bila dabilenak -27. orriko koadroan informazio gehiago produktuei buruz-. Arrakasta berezia izaten ari da Jakoba Errekondoren *Etixerako Landareak* liburu ederra, hilabetean 2.500 ale saldu ondoren, bigarren edizioa prest duena.

Bestetik, Durangoko Azokaren webgune berezian aurkituko ditu herrita-





rrak gure produktu guztiak; eta aldi berean, ARGIAren online denda edo Azoka (azoka.argia.eus) berritu dugu, webgunea txukunagoa izateaz gain, antolaketa sinplifikatu eta mugikorretako nabigazioa hobetuz. Azken aldian arrakasta handia duen Instagram plataformaren bidezko salmentak bideratzeko prestatu da lantaldea.

Azkenik, salmenta leku fisikoei dago-kionez, merkataritza txikiaren aldeko apustu politikoa berresten du ARGIAk. Herrien bizitzarako eta burujabetzarako ezinbestekoak diren dendariei panorama nola ari zaien belzten ikusita, alfonbra gorria jarri dieten multinazionalen oldarraldiaren aurrean, *Herrian erosi* kanpaina abiatuko du ARGIAk, ga-bonak amaitu arte gutxienez. Auzo eta herrietako saltokiak denon artean de-

fendatu eta eutsi behar ditugula modu irekian aldarrikatzea izango da xedea.

Aldarrikapen hau erabat loturik dago azken urteetan lantzen ari garen bide batekin: ARGIAren banaketa sare propioa. Gutxitan hitz egiten bada ere informazioaren katebegi honi buruz, informazio burujabetzarekin lotura zuzena duen gaia da, informazioa sortzen dugunetik herritarrengana hel-tzen den bitarteko prozesuaren parte delako. ARGIA n sartzten den langileak prozesuaren katearen kontrola eskuratzeko estrategikoa dela jasoko du etxeko beteranoen eskutik. Logika honetatik ulertzen da aurreko hamarkadetan aldizkariaren inguruan antolatu diren Antza inprenta, Adur software eta la-metza komunikazio enpresak, edo berrikiago, bizikleta bidez eta langileen

duintasuna errespetatuz aldizkariaren banaketa egiteko Eraman kooperatiba-ekin abiatu dugun zerbitzua.

Gaur egun gure produktuak aurki daitezke Euskal Herriko ehunka kiosko, liburu-denda, papertegi, jostailu denda, denda ekologiko, nekazarien kooperatiba, pentsu denda, loradenda edo belar dendetan. Euskal Herrian bizitzeko eskubidea eta paperak ongi me-rezi dituzten Bilboko kale-saltzaileekin ere elkarlan eskeman ari gara lanean duela bi urtetik, Mikel Garciairen erreportaje baten hariari tiraka abitutako harremanean.

ARGIAko produktuak saltzeko dendak identifikatzen laguntza eskatzera gatzoz. Zure auzo edo herrian gustuko duzun denda horretan gure materialek kabida dutela uste baduzu eta denda-



DANI BLANCO

ARGIA n bilerak kalean egiten hasi da lantaldea, aurrez aurreko harremanak erraztu asmoz, baina osasun neurriak lehen lerroan jarriz.

riari edo guri esaten badiguzu –679 81 73 54 edo okorta@argia.eus–, berarekin harremanetan jarri, diru kontuak adostu eta ziztu bizian bidaliko diogu materiala.

Ezin dugu onartu COVID-19 izurritearen irabazle nagusia Amazon izaitea, tokiko ekonomiaren eta langileen eskubideen bizkar. Pello Zubiriaren irakurle fidelek 2013an dagoeneko irakurria zuten enpresa honen jukutriari buruz, ondorengo izenburua zeraman erreportajea: *Amazonen kazetari gazteak aurkitu zuen usina orwelldarra*. Aurreko astean informatu dugu Bizi!-ko militanteek Baionan salatu dutela multinazional honek bultzatzen ditue-

la prekarietatea, munduaren alde bategatik bestera produktuak garraio kutsagarriak baliatuz eramatea eta tokiko saltegi txikiak suntsitzea, gehiegizko kontsumoa bultzatzearekin batera. Argi esan nahi dugu: ARGIA ez dago Amazonen, edo ez egotea erabaki du. Gure sorpresarako ARGIAren produktuak bertan eskaintzen dituztenekin harremanetan jarri gara ken ditzaten, eta erakundeetatik eta gizartetik neurriak hartu behar direla ikusten dugu, milaka komertzioaren gaintik urakan bat bezala pasatzea nahi ez badugu behintzat. Are gehiago, gurean banaketa zentro bat antolatuko duela iragarri berri duten honetan.

HITZALDI ZIKLOA

Etxean ordu asko igarotzen ditugula eta internet bidez ikus-entzunezko produktu dotoreak egiteko moduan gaudela ikusita, hitzaldi zikloa antolatu du ARGIAk, bere agenda propioaren araberrako gogoetak sustatu asmoz. Euskaratik posible delako komunitatea beste balio, beste ikuspegi eta beste jarrera batzuekin eraikitzea, orain hilabete batzuk ARGIAko kide egin berri zen Donostiako Beñatek adierazi zigun bezala. “Are gehiago, hori delako herri hau etorkizunean euskaraz bizi dadin dagoen modu bakarra”, borobiltzen zuen berak.

Astean hiru solasaldi sareratuko

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

Usurbil,
Euskaraldiarekin bat.



ditugu, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Gaiak, oso anitzak: bioaniztasunaren galera, Inor Ez Da Ilegala proiektua, ekonomia sozial eraldatzaila, etxebizitza eredu berriak, informazio burujabetza, landareen zaintza, agroekologia... Egitarau osoa 41. orriko *Komunitate orrian* daukazue.

Eta hitzaldi zikloa prestatzeak ekarri du ARGIAk bere egoitzan telebista plato bat izatea aurrerantzean. Egun batetik bestera, pintura granatea eskeratu, bilera zabalak egiteko erabiltzen zen gelako pareta bat margotu, bigarren eskuko besaulki polit bat erosi, argiztapena eta dekorazioa antolatu, eta horratx solasaldi eta elkarrizketak grabatzeko estudioa. 100 asteren ostean *Beranduegi* web telebista egiteari utzi zitzaionetik ez da Lasarte-Oriako egoitzan telebistarako platorik izan, eta aurrera begira helburua izango da honi zukua ateratzea, Eneritz Arzallusen gidaritzapean.

EDOZEIN ITURRITATIK EDATEN DUZU?

Urte amaieraren errepassoak ezinbestean garamatza harpidetzez hitz egitera. Edozein proiektu bultza duenak badaki zein zaila den dirua jartzeko prest dagoen jendea lortzea. ARGIAk bere historiako 101 urteetan gorabehera handiak bizi izan ditu, eta horrek are eta balore gehiago ematen dio azken urteetan izandako emaitzei. *Zenbat Gara?* prozesuaren amaierara heltzen ari gara, zenbat pertsonako komunitatea osatzen dugun jakin asmo duen lanketa. Jarraian harpidetza edo komunitateaz titular batzuk, joerak azaltzeko balio dutelakoan.

- 2013. urtetik, zazpi urtez jarraian ARGIAko komunitatea etenik gabe hazi da, ia %35 guztira.

- Kide berrien kopuruari dagokionez, 2019an egin genuen inoizko markarik onena. Aurten dagoeneko gaintitu da kide berrien kopuru hori eta urtea amaitzeko hilabeteen falta da.
- Proiektuarekin bat egiten duten pertsonen kopuruak urtez urte gora egiten duen bezala, harpidetza eteten du jende askok, baina bajen kopurua azken 10 urteetako txikiena izaten ari da 2020an.
- ARGIAren harpidetzari prezioa kendu eta eredu aldatzea proposatu zen unean, lantaldean zenbait beldur mahai gaineratu ziren arren - "eta jende guztiak aldizkaria doan jaso nahi duela eskatzene badu?" -emaitzek arrazoia eman diote erabakiari.

2013. urtetik
ARGIAko
komunitatea etenik
gabe hazi da,
ia %35 guztira

- Zenbat diru eman erabakitzea norberaren esku utzi denetik, harpidetzak ezarrita izaten zuen prezioa baino gehiago jartzen dute kideek batez beste kideek proiektuaren alde.
- Doan jasotzen duten kolektibo eta pertsonak ere geroz eta gehiago dira, eta komunitatea gai izaten ari

da kide hauen informatzeko esku-bidea bermatzeko.

- Norberak nahi eta ahal duena jartzeaz gain, bakoitzak bueltan jaso nahi duena pertsonalizatuta eskatzeko aukerak, ARGIAko "harpidedun" izateko modu ugari ekarri ditu, guztiak interesgarriak eta norberaren gustuetara egokitua.
- Azken 10 urtean mugimendu handia izan da ARGIA ekonomiko-ki eusten duen komunitatean, eta ikerketa sakonago bat merezi lukeen arren, esan dezakegu belar-naldi aldaketa potente bat gauzatu izanaren zantzu handiak ikusten direla datuetan. Baita, duela urte askotatik ARGIAko harpidedun fidelek gure alboan jarraitze dutela ere.

ARGIAko historiako emaitza onenak izan arren, kezka bizi dugu gainean dugun krisi ekonomiko eta soziala, eta azken aldia horren froga gordinak lehen eskutik jasotzea tokatzen ari zaigu, pertsona jaitsi behar izan duten komertzioen edo ostalarien etete mezuekin. "Lehendik ere ezin nuen aldizkaria bezeroen artean partekatu, eta orain negozioa itxi behar izan dudanez, baja emateko idazten dut", adierazi digu aurreko astean kide batek. Arrazoi ekonomikoak dira nagusi mezuotan, horregatik ari gara azken berriro errepikatzen inork ez duela zertan ARGIArik gabe geratu arrazoi ekonomikoak bada. Eta behin hau esanik, bigarren aldiz hunkitu gaituzte, egoera zaurgarriagoan daudenekin elkartasunez mugitzen diren komunitateko kideek.

ARGIAkoa egiteko arrazoiak publiko egiteko baimena ematen diguten kideen mezuak irakur daitezke Twitterren @ArgiaJ kontuan. Izan euskara



bultzatzeko edo kazetaritza independentea –bi horiek izaten dira arrazoi nagusiak–, edo nahi den arrazoigatik, komeni da esatea ARGIAko kidetza egitea dela proiektu hau bultzatzeko era estrategikoa guretzat. Eta oraindik arrazoi on baten bila bazabiltza, ea zer iruditzen Baionako Jean-Dominiquen hau: “Ez dut edozein iturritik edaten”.

ZENBAT DENBORAZ...

...egin daiteke aldizkari zorrotz bat kazetari bakoitza bere etxean sartuta dela? Hiru hilabetez? Sei? Urtebete? Ez dakigu, baina konfinamenduak ikusarazi digu ARGIA harremanetatik –era guztietakoetatik, batez ere gure arteko– elikatzen dela, lantokian sortutako elkarrizketa informaletan ateratako gai, kezka eta ikuspuntuak direla gero argitaratuko diren erreportaje, elkarrizketa, analisi edo albisteen abiapuntuak.

Martxoan langile guztiak etxera joan ginen eta aldizkaria paperean argitaratzeari utzi genion, gure inprentako edo postako langileen osasuna beste gauza guztien gainetik jarri asmoz. Teledena ez zen praktika berria izan gurean, aurretik ere, ARGIAko langileok izan bai-

tugu aukera etxetik lan egiteko, Euskal Herri zabalean bizi garen langile taldea baikara.

Webgunea eta sare sozialak ARGIAko kazetari guztiok erabiltzen ikastea eta trebatzea duela urte batzuk hartutako erabaki estrategikoa izan zenez,

Zenbat diru eman
erabakitzea libre
utzi denetik, finko
zuen prezioa baino
gehiago jartzen dute
kideek batez beste

astekaria utzi eta hedabide digital bilakatu genuen ARGIA, eta kazetari bakoitzak etxeko zaintza-lanekin uztartzeko bere lan-ordutegia aukeratzeari esker, lehen aldiz astelehenetik igan-

dera, 06:00etatik 22:00 bitarte eguneratzen genuen informazioa. Emaizta: Webgunean ohiko bisitak hirukoiztea, ordura arteko gure bisitari errekorak birrinduz.

Denborarekin, ordea, aldatzen joan dira gaitzaren aurrean ezarritako babes-neurriak eta ezagutza. Konfinatu gabe ahalik eta bizitzarik bizigarrienak egiteko aukera politikoa aldarrikatzen du ARGIAk. Udazken honetan langileen gehiengoa batez ere etxetik ari bada ere, elkartzeari balorea aitortu eta lan eredu mixtoa praktikatzera erabaki dugu. Osasun neurriak zorrotz hartuz –leioak etengabe zabalik, bazkaria eta bilerak kalera ateratzen den mahaian–, elkar egoteko moduak bilatzea izan da erabakia, batzuk astean bitan edo hirtan, eta guztiok gutxienez astean behin elkarrekin egotea bilatuz bilera finkoen bidez. Interakzioaren bizitasuna berriro ere piztu da hala, eta espero dugu azken aldizkarietan nabaritu dela. Poztuko ginateke kanpotik sumatuko balitz lantaldeak asko eztabaidatzen duela argitaratzen diren gaiei buruz, kazetaritza egiteko irizpide serioei eusten diela, eta batez ere, bizi-bizirik helduko dela laster 102 urte betetzera.

AHOBIZI

ARIGUNEA

BELARRIPREST

**EUSKARAZ LASAI
ARITZEKO GUNEA**

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

EUSKARALDIA

steillas

Baloretan oinarritutako produktuak

Sinesten dugu gure produktuetan, gure baloreetatik pentsatuak dira. Mundua eraldatzeko norabide justuan prestatutako edukiak dituzte”, dio Estitxu Eizagirrek, kazetari izateaz gain, Azoka lantaldeko kideak. "Aldi berean, garbi diogu produktu hauek erosteak baduela guretzat oso beharrezkoa den militantziatik".



Oroimena eta transmisioa lantzea interesgarria dela? **ARGIaren egutegia**, 2021ean ere egunero gertaera historiko batekin hasteko eguna.



Bizi garen etxebizitzaren kontzientzia hazten ari dela? **Komunitatean bizi liburu**a. Gaur egungo etxebizitza-ereduarentzat alternatiba posible bat proposatzen duen Lacol eta Ciutat Invisible elkarte kataluniarren liburu euskaraz.



Baratzeari garrantzia ematen diogula? **Ilargiaren egutegia eta agenda**. Nekazari orok behar duen erreminta.



Sekula baino denbora gehiago pasatzen dugula etxean? **Etxeko landareak liburu**a. Jakoba Errekondoren eskutik, zaintzarekin, edertasunarekin eta naturarekin loturiko lana, gure bizitzak egiten ditugun lekuak atseginago egiten laguntzeko.



Oinarritzko eskubideak eta pertsonen arteko elkartasuna zalantzan jartzen dituztela? **Inor Ez Da Ilegala proiektua**, Mbolo Moyle Doole elkartearekin. Bilbon paperak lortu bitartean bizirauteko kale-saltzaile dabilzan senegaldarren komunitatearekin elkarlanean. Dagoeneko 15.720 euro bideratu ditu kanpaina honek Mbolo elkartera.



Agroekologian ari diren nekazarien SOS deia geroz eta ozenagoa dela? **Lurra herriari deika!** kotoi organikoarekin eginiko kamisetak atara ditugu elkarlanean. Azken berritasuna: erosketetan baliatzeko plastiko zorroren ordezkotako telazko poltsa.



Bioaniztasunaren galera begi bistakoa dela? Euskal Herriko haurrek ez dakitela zein diren bertako animaliak? Ezagutza etenari aurre egiten laguntzeko, **Xapoketan jolasa eta posterra**.



Estatuen Europak izugarritzko kultur-aniztasuna azpiratzen duela? **Europako Herrien Mapa**. Herri bakoitza bere hizkuntzan eta azpian euskaraz idatzia.

URTEA BOROBILDU BEHAR

“Azken hilabetea gora edo behera egiteko arrisku unea izaten da eta oraindik ez dakigu nola amaituko den urtea –dio Bego Zuza ARGIAko kideak–. Iaz Durangon egin genuen salmenta ez dugu egingo. Hala ere, gure aurreikuspenak jaitsita ere, lan ongi eginez gero, *par* egin eta urtea salbatzeko moduan gaudela uste dut”.

Azken hamar urteetan ARGIAren komunitatean belaunaldi aldaketa gauzatu da

Zuzak dena den, argi du gurea gisako enpresak espezie bereziak direla: biziraupenera ohituak. Diru irabazi asmorik gabe, urtez urte biziraupena bermatzea da lehentasuna, gero gero-koak. “Iaz mendeurrena izan zen, urte ona egin genuen eta aurten langileok bi paga extrak ordaintzea aurreikusi genuen urte hasieran; pandemia iritsi zenean, ordea, zuzenean kendu genituen bi ordainsari hauek –inori ez zaio burutik ere pasa kobratuko genituenik–, eta erabaki horrek ondorio zuzena du urtea ekonomikoki ongi amaitzearekin. Hori ere bada langileok proiektuaren alde jartzen duguna, gardentasunagatik ere esaten dugunez”.

Emitza ekonomikoa azaltzeko beste lau faktore erabakior ikusten ditu:



“Nola gorpuztu dugu COVID-19a?” galderari taldean erantzuteko dinamika prestatzen Lasarteko egoitzaren ondoko parkean.

LANDER ARBELAITZ

“Harpidetzen igoera, hiru urtetarako finkatutako diru laguntzen bermea; publizitate instituzionalaren erorketa, eta dibertsifikazio lerroek –Bizi Baratzea, Inor Ez Da Ilegala, Lurra Herriari Deika...– egin duten konpentsazio lana. Oso urte potentea izan da”.

Aurrera begira, Azokako produktuak saltzen asmatzearekin batera, harpidetzak lantzen eta komunitatea handitzen jarraitzea estrategikoa dela uste du. Gauza bat argi izan behar da bere ustez: zenbat eta komunitate handiagoa, orduan eta baliabide gehiago egun egiten dugun kazetaritza hobetzeko, ekipo humanoa handitzeko, gaur egun lantaldea iristen ez den esparruetara heltzeko, eguneko orduak fisikoki ematen ez

duten lan horiei hobeto erantzuteko. “Ateratzen den diru guztia kazetaritza hobe egiteko inbertituko da, ea gai garen gure independentzian sakontzen jarraitzeko”.

“Pandemiak aldaketa handiak ekarri ditu bai gure bizitzetara, baita ARGIAra ere, baina azken urteetan proiektuan langileok egiten joan garen berrantolaketa eta berregokitzeekin, aurrean dugun erronkari aurre egiteko prest harrapatu gaitu”, diosku Estitxu Eizagirre kazetariak. “Azken batean, pandemia hau ez al da bakoitzaren oinarri pasatzen zaien froga ezin gogorragoa? Gu prest harrapatu gaitu. Orain urtea ongi amaitzera”. ●

G Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industria



Ihiztadura



Bioteknologia

